

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

37/2020 Mozioa, ekainaren 29koa, COVID-19ak eragindako kalte handia dela-eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreari laguntzeko

Arabako Batzar Nagusi hauetako Nekazaritza VIII. Batzordeak, 2020ko ekainaren 29an egin-dako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

37/2020 Mozioa, ekainaren 29koa, COVID-19ak eragindako kalte handia dela-eta nekazari-tzaren eta abeltzaintzaren sektoreari laguntzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote abeltzaintzako merka-tuen bilakaera eta koronabirusaren eraginez ekoizpeneko azpisektoreek izan litzaketen ondorio ekonomikoak etengabe azertu eta horien jarraipena egiteko, Eusko Jaurlaritzarekin, abeltzainen elkarrekin eta UAGAren elkarlanean.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote abeltzaintza-sektorea ekonomikoki eta komertzialki babesten jarraitzeko, tokiko abeltegietako ekoizpenaren kontsu-moa sustatuta, ustategien errentagarritasunari eusteko laguntza ekonomiko eta finantzarioak eskainita, haragiak eta eratorritako produktuak modu pribatuan gorde eta erretiratzeko aukera emanda, merkaturatzeko bide berri eta alternatiboak irekita, produktu-aukera berria eskainiz dibertsifikatuta eta merkatuaren etorkizuneko bilakaera kontuan hartuta beharrezkoak izan litezkeen gainerako neurriak hartuta, betiere Eusko Jaurlaritzaren eta ekoizleen lankidetzarekin.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete abeltzaintzako ekoizleen antolakuntza eta integrazio komertzial kooperatiboa susta dezatela, tresna egokia baita negozioazio-ahalmena, lehiakortasuna eta merkaturako sarbidea hobetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 29a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA